

**Berriz ausartu
ziren, orain
Egunkariarekin**

artefaktua.naiz.eus

ARTEFAKTUA

1977 1999 2024

21 ENE. 2024

JOPUNTUA

Sagardo fresko eta erotikoa

Eli PAGOLA
Bertsolaria

Bada teoria bat esaten duena edozein hitzek balio duela «mozkorra» ordezkatzeko; batere loturarik ez duen edozein hitzek. Adibideak. Melokotoi galanta. Atzo Amets sekulako bikarbonatoarekin zihoan; hori, mesanotxea, hori! Halako prozesadorerik, gutxitan. Zentrifugatuta zebilen. Zepillua, ostia, biajea, zepela, legatza eta askoz gehiago. Izango da testuinguruagatik ulertzen delako, zeren, hitzen lehen esanahiek ez dute zerikusirik emandako adiera horrekin. Oinarrizko umore deituko diote; hala ere, grazia egiten dit beste kontestu batera eramandako hitzen jolasak. Mekanismo bat izan daiteke nondik heldu ez dakizun gaietarako.

Goazen 2024ko txotx irekierara. Astigarragan aste honetan egin dute ekitaldia eta, ohi bezala, ohorezko gonbidatu batek eman dio hasiera denboraldiari. Horren harira, 1994-2024 urteen artean izandako gonbidatuen zerrenda ere publikatu da. 31 ekitalditan 36 gizon omendu dira eta 14 emakume (2010ean, Reala omendu zutenekoan, ordezkari aritu ziren hirurak soilik kontatu dira); gonbidatu bakar izan direnetatik, berriz, 19 izan dira gizonezkoak eta 4 emakumezkoak. Gonbidatuen ofizioak ere esanguratsuak dira: 4 edizio sukaldarientzat, 9 kulturgileentzat eta 15 kirolarientzat. Baten bat etorriko zait «zer espero zenuen ba»-ka eta ez naiz aurreiritziarekin ados egongo, baina kontua ez da hori. Kontua da laster gonbidatuko dutela Anjel Erro irekierara eta ulertuko dugula ekitaldi honetan orain arte ezkutuan eraman duten jolasa. Badira zenbait urte Errok pilotaren terminologia eta esamolde homoerotikoen berri eman zuela. Tesia da pilotarien adierazpenak kontestuz mugitzen badituzu nor baino nor lizun eta sentsualago aritzen direla euren jardunaz. Artikulu horiek inflexio puntu dira kirolaren ulerkeran. Bada, urteko sagardoaren aurkezpen azalpenetan ez al dira jolas horretan



PUBLICIDAD



Lo +



Ikusi Arte Tour, hasiera baten aurreko amaiera



Tolosako kargari buruzko «azalpen argiak» eskatu dituzte Villabonan



Díaz Ayuso contrata a Arturo Espejo, implicado en la muerte de Zabalza 🔑



«¿Los israelíes? Que vengan, les daremos la bienvenida» 🔑



«Hay una exigencia de parecer muy transgresora y no serlo en absoluto» 🔑
